

Asisko gutuna

2012ko uztaila. 1. printzipioa. Eguneroko bilatzea

Jainkoarekin harreman pertsonala 45. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Hil honetako gutunaz, gogoeta egitera gatoz berriro Asis sareko lehen printzipioarekin: “Egunero, Jainkoarekiko harreman pertsonala landu”. Gutunak hasieran duen gogoetagaia gure sinesmen txikiaz doa eta horrekin batera bizi diren zalantzez. Hausnarketa honen harian bidezkoa da galdetzea: zerk balio du gehiago

bizitzan, bizitzako segurantza egindako ziurtasun batek, ala bilaketa egindako zalantza batek? Bi bide horietatik zeinek eraman gaitzake hobeto Jainkoarekin harreman pertsonalean aurkitzera? Ebanjelioak aipatzen duen sinesmena, ziurtasunen artean sumatzen da ala bilaketaren kezken artean?

Gogoetarako gaia

Gure sinesmen txikia

Zalantzaren presentzia sekula baino errealagoa da gaurko munduan. Batzuetan aurrez arriskutsua ikusten da, badirudi amildegia irekitzen zaigula aurrean, eta hor badago ere, sinesmenarekin batera bizi da zalantza. Garai batean, aurki genezakeen laguntza elkartean, baina orain fedea pertsonalagoa bihurtzen da. Eta besteen sinesmenean sostengu aurkitzen badugu ere, sinesmena norberarena egin da gehiago, eta horrek hauskorragoa bihurtzen du.

Dena den, gizakiak bere zalantzez haraindi beste zerbaitekoa, garbiagoa ... bilatzen du. Bihotzak atsedean aurki dezan tokiaren bila gabiltza. Sinesmenak zalantza artean erdizka ikustera garamatza. Baina ezin dut sinesmena neure egin, ez da neurea. Batzuetan oso txikia da, eta ez dauzkan frogak nahiko lituzke.

Itun Berrian sinesmena ez da, nekez konprenitzen diren egia zailak ulertzea; desira bat baizik, egarri bat,

Jesusengana erakarria izatea. Gu haren bila hasi baino lehen, bera hor zegoen. Ulertu ezinekoaren eta zailtasunen aurrean, sinesmenak toki batean aurkitzen du zentzua: Jesusekin eta haren hitzarekin aurkitzean. Kristorengana hurbiltzeak sinesmenean mantentzen gaitu. Gauza asko ulertzen ez baditugu ere, munduak bizkarra ematen badigu ere, Harekin topo egiteak markatu egiten digu bizitza.

Kristoren aurkitzea da fedearen bihotza. Topo egite hori ezin da aurrez ikusi edo esan. Hortik aurrera haren hitzak eta bizitzak norabidea ematen dio gure hondora joan beharrari. Ustekabean isiltasun momentutan, alaitasunean, sufrimenduan, maitasunean, bakardadean, otoitzean edo ebanjelioan aurkitzen dugu, harengan bakarrik dagoela maitasuna. Orduan gure sinesmen txikia ez da gure neurrietara murrizten; esker onera eta adoraziora irekitzen da.

Ebanjelioko pasartea: Mt 14, 24-34

Txalupa, ordurako, lehorretik urruti zihoan, uhinek astindua, haizea kontra baitzuen. Goiz aldera, ikasleengana joan zen Jesus, ur gainean oinez. Aintziran ibiltzen ikusi zutenean, ikasleak izutu egin ziren, mamuren bat zelakoan; eta beldurraren beldurrez oihuka hasi ziren.

Baina Jesusek berehala hitz egin zien eta esan:

– Lasai! Neu naiz. Ez beldurtu!

Orduan, Pedrok esan zion:

– Jauna, benetan zeu bazara, agindu iezadazu ur gainean zuregana joateko.

Jesusek erantzun:

– Zatoz.

Pedro ontzitik jaitsi eta Jesusengana abiatu zen ur gainean oinez. Baina, haizearen indarra nabaritzean, beldurra sartu zitzaion, eta, hondoratzen hasi zelarik, deiadar egin zuen:

– Jauna, salba nazazu.

Jesusek eskua eman eta heldu egin zion, esanez:

– Sinesmen gutxiko hori! Zergatik izan duzu zalantza?

Txalupara igo zirenean, haizea baretu egin zen. Eta ontzian zeudenak Jesusen aurrean ahuspez jarri ziren, esanez:

– Egiaz Jainkoaren Semea zara zu!

Aintzira igaro ondoren, Genesaret lurraldera iritsi ziren.

Frantziskotar espiritualitatea

“Jainko goren eta ospetsua, argi ezazu nire barne-ilunpea eta emadazu fede zuzena ...” (SDaOt). Konbertitzen hasi berritan, Frantziskok argia bilatuz eta fede zuzena eskatuz egiten du otoitz. Bere bizitzaren azken-aldian, besteek goresten zutenean esaten zien: “Ez ni goretsi seguru banengo bezala, oraindik seme-alabak izan baititzaket” (2 Zel 133). Fede zuzena, Frantziskori bizitzea eman zitzaiona bezalakoa, ez da zalantzarik gabea, ziurtatua, edo barne-ilunperik gabea. Eta ez da murrizten ere doktrinaren zuzen ibiltzera.

Frantziskorentzat fede zuzena hori baino gehiago da “Jaunak eman zidan niri, anaia Frantziskori ..., Jaunak berak eraman ninduen ..., Jaunak eman zidan eta ematen dit”. Hori da fede zuzena: norberaren bizitzan Jauna presente, eraginean, lagun izaten, bihotza eta bidea argitzen dagoelako konfiantza sakona. Hori da fede zuzena: sekula ez dela seguru egoten jakitea, baina “badakit Nortaz fidatu naizen” bat; arrotz eta erromes izatea utzi gabe, baina seguru Kristori begira eta otoitzka: “Argitu nire ilunpeak ...” Eta horrela, pausoz pauso, egunez egun, aitortuz Hura dela bihotzeko Argia.

Gure segurantza ez da geure fedea. Jauna da gure segurantza. “Sinesmenak zalantzak ditu, bere buruarekin leial izateko” (A. Vergote). Fedea ez da geurea den zerbait, hori baino misterio ederragoa da. Hori aldarrikatzen du Frantziskok La Vernako esperientziaren ondoren: “Zu zara gure fedea” (JaGor 6).

Otoitza

Sinestea, ...
ez da amets egitea,
ez hegan egitea,
ez ilusio-munduan barneratzea,
ezta belar txarrak kentzea ere,
ezta galdekizun guztiei erantzutea ere,
ezta sostengua aurkitzeko ...
egitura logiko eta arrazoizko bat izatea ere.
Gaur, Jauna, sinestea
haztamuka ibiltzea da,
nola egunez hala gauzez, ilun eta argi artean,

istilu eta isiltasunetan
—zeintzuek estali eta azalarazi, nahasi eta ernarazi
egiten duten—
eta zentzu nekatuz ahalegintzea
zu usaintzen, zu ukitzen, zuri entzuten eta musu
ematen
zure bitartekoen bidez.
Eta pozik izatea,
hemen horrela
haztamuka ibiltzeagatik.

(Florentino Ulibarri)

Gutuneko azken hitzak

Segurantza lilura bat da eta ezkutatu egiten du errealitatea. Zalantzan dago errealitatearen hasiera eta bilaketa sorrarazten du.

2012ko abuztuko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate abuztuko erreferentzia guztiak:

1 Mt 13,44-46	8 Mt 15,21-28	15 Lk 1,39-56	22 Mt 20,1-16	29 Mk 6,17-29
2 Mt 13,47-53	9 Mt 10,28-33	16 Mt 18,21-19,1	23 Mt 22,1-14	30 Mt 24,42-51
3 Mt 13,54-58	10 Jn 12,24-26	17 Mt 19,3-12	24 Jn 1,45-51	31 Mt 25,1-13
4 Mt 14,1-12	11 Mt 17,14-19	18 Mt 19,13-15	25 Mt 23,1-12	
5 Jn 6,24-35	12 Jn 6,41-51	19 Jn 6,51-58	26 Jn 6,60-69	
6 Mk 9,2-10	13 Mt 17,22-27	20 Mt 19,16-22	27 Mt 23,13-22	
7 Mt 14,22-36	14 Mt 18,1-5.10.12-14	21 Mt 19,23-30	28 Mt 23,23-26	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2012ko uztaila. 1. printzipioa. Egunero bilatzea

Jainkoarekin harreman pertsonala 45. zenbakia

Berriro ere Asis Sareko lehen printzipioaren bidez egiten dugu otoitz, gogoeta eta lana: Egunero, harreman pertsonala landu Jainkoarekin. Horretarako gai hau ematen zaigu pentsatzeko: Gure sinesmen txikia. Egunero Jainkoarengana, nahiz eta zalantzak beterik, itzularazten gaituen sinesmen txiki hori.

Gure sinesmen txikia

Aldaketaz, ziurtasun faltaz, zalantza eta beldurrez beteriko mundu eta une sozial batean bizi gara. Horren barruan bizi dugu zerbait gehiagoan sinestea, Jainkoagan sinestea.

Zure bizitzako une honetan zeintzuk dira dituzun zalantza, ez-ziurtasun eta beldurrik zimikagarrienak? Beldur eta zalantza horiek hurbildu egiten zaituzte Jainkoagana ala Harengandik aldendu?

Eta gaurko egoeraren aurrean, zeintzuk dira datozkizun fede-zalantzak? Zertan edo noengan bilatzen duzu laguntza zalantzak, beldurrak ... agertzen direnean?

Sinesmen txiki hori gabe, ezingo genuke bila ibiltzen hasi. Baina zer bilatzen dut? Neure burua ala Jainkoa?

Jainkoaren bila gabiltzanean, Jesus gure bila atera dela aurkitzen dugu. Aurkitu zara Jesusekin? Behin Berarekin aurkituz gero, aldatu egiten da bizitza. Honek buelta ematen du eta orduan alboratu egiten dugu geure bizitzaren protagonista izatea eta utzi egiten diogu Jesusi gure zentro eta harkaitz izaten, gure sinesmen txikia Harengan txertatua gelditzen delarik. Zer eman dio zure bizitzari Jesusekin aurkitze horrek?

Jesusekin aurkitze hori ezin dugu kontrolatu; soilik uste ona eta konfiantza izan dezakegu: Hark aurkituak izaten utzi.

Bila dezagun Jesus otoitzean eta Beraren Hitzean. Eskatuko diogu, zabal dezala gure sinesmen txikia eta ireki diezagula bihotza, ematen digun maitasun guztiagatik Berari eskerrak emateko.

“Neu naiz. Ez beldurtu.”

Jesusen ikasleak lakuan dira. Bat batean ekaitza datorkie gainera, olatuek dantzan darabilte ontzia eta arriskuan dira. Jesus laku gainean ibiliz agertzen da, eta izutu egiten dira mamu bat dela pentsatuz.

Irudi ezezagun hark hitz bihotz-altxagarri huez ematen du ezagutzera bere burua: Lasai! Neu naiz. Ez beldurtu!

Pedrok, beldur eta konfiantzaz beterik, esaten dio Jesusi: “Jauna, benetan zeu bazara, agindu iezadazu ur

gainean zuregana joateko”. Eta Jesusek esaten dio: “Zatoz”.

Baina Pedro, nahiz eta lehenik Jesusengan konfiantza jarri eta Harengana abiatu, gero berehala izutu egiten da, galdu egiten du konfiantza eta hondora doa.

Guri ere ez al zaigu antzeko zerbait gertatzen bizitzan? Lasai bizi gara, baina gutxien espero dugunean dena hankaz gora jartzen da: gaixotasunen bat, kontrolatu ezin dugun egoeraren bat familian edo lanean, eta beldurra jabetzen zaigu. Une horretan agertzen da Jesus kontrolatu ezin dugun bizitza horren erdian eta esaten digu: “Lasai! Neu naiz. Ez beldurtu”.

Jesusek indarra eta ausardia ematen digu, baina hain sinesmen gutxikoak gara, eta hondora abiatzen gara Pedoren eskea egitera etorri: “Jauna, salba nazazu.” Hark bakarrik atera gaitzake beldur eta zalantzetatik. Hark bakarrik baretuko du gure bizitza, haizea aintziran bezala.

Adora eta aitor dezagun Bera Jainkoaren Seme gisa, gure bizitzari norabidea eta baretasuna ematen diona gisa.

“Argi ezazu nire barne-ilunpea eta emadazu fede zuzena”

Hori izan zen Frantzisko donearen aurkikuntza: Fedea ez dela ziurtasuna eta betiko geurea den zerbait. Sinesmena, Jaunak bizitzan lagun egingo digun konfiantza dela, geure baitako zalantza eta ilunpeak gora-behera.

Zer esanahi du niretzat, Jainkoak barne-ilunpeak argitze horrek? Zertan gauzatzen da hori nire bizitzan?

Eska diezaiogun Jaunari, eman diezagula Jainkoagana hurbil gaitzakeen fede zuzen hori, Hura bera izan dadin gure fede.

Sinestea...

Egizu otoitz testuaren bidez, eta eska egiozu Jainkoari lagun diezazula honetaz konturatzen: Berarekin hor, haztamuka, ilunpean, Jaunak zure bizitza gidatuko duen konfiantzan egote hori dela poza.